BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

176

EBAZPENA, 2020ko azaroaren 3koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bitartez «Asociación de Laboratorios de Control de Calidad de la Comunidad Autónoma Vasca-Euskal Komunitateko Laborategien Elkartea (EKLAE)» enpresa-elkartea desegiteko eta likidatzeko erabakia gordailutzeko agindua ematen baita.

Ikusi da Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza honetan hasitako espedientea, «Asociación de Laboratorios de Control de Calidad de la Comunidad Autónoma Vasca-Euskal Komunitateko Laborategien Elkartea (EKLAE)» enpresa-elkartea desegiteko eta likidatzeko erabakia gordailutzeari buruzkoa. Horrekin lotuta, ebazpena eman da, honako aurrekari hauek oinarri hartuta:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2020ko urriaren 29an, «Asociación de Laboratorios de Control de Calidad de la Comunidad Autónoma Vasca-Euskal Komunitateko Laborategien Elkartea (EKLAE)» enpresa-elkartea desegiteko eta likidatzeko erabakia gordailutzeko dokumentazioa aurkeztu zen.

Bigarrena.– Gordailutzeko aurkeztutako agiriak hauek dira: gordailuari baja emateko eskaera; 2020ko urriaren 14ko Ezohiko Batzar Orokorraren akta; bertan hartutako erabakien ziurtagiriak, hala nola elkartea likidatzeaz eta desegiteaz arduratuko den pertsona izendatzea; elkartearen ondasunen behin betiko likidazioaren ziurtagiria; sinatzaileak identifikatzeko dokumentazioa; eta gobernu-organoen titularren kargu-uztea.

Egitate horiei zuzenbideko oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Sindikatu- eta enpresa-elkarteen estatutuak gordailutzeko eskumena organo honi ematen dio Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 9.1.m) artikuluak. Dekretu hori indarrean dago, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.– Administrazio-prozedura honetan aplikagarria den funtsezko araudia apirilaren 1eko 19/1977 Legean eta sindikatu- eta enpresa-elkarteen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan dago jasota.

Hirugarrena.– Gordailutzeko aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu da, eta, horrenbestez, bidezkoa da gordailutzeko onartzea «Asociación de Laboratorios de Control de Calidad de la Comunidad Autónoma Vasca-Euskal Komunitateko Laborategien Elkartea (EKLAE)» enpresa-elkartea desegin eta likidatzeko erabakia, bai eta horren berri ematea ere.

Aipaturiko oinarriak eta oro har aplikatzekoak diren xedapenak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Asociación de Laboratorios de Control de Calidad de la Comunidad Autónoma Vasca-Euskal Komunitateko Laborategien Elkartea (EKLAE)» enpresa-elkartea desegiteko eta likidatzeko erabakia gordailutzeko agintzea.

Bigarrena.– Agindua ematea gordailutze hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin, sindikatu- eta enpresa-elkarteen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren 13.3 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ondorioak izango ditu ebazpena eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen berri eman bekie interesdunei, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako eran; halaber, jakinarazi behar zaie badagoela ebazpen hori aurkaratzeko aukera, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Lan Arloko Salan, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 3a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
ANGEL LAPUENTE MONTORO.